



AGINDUA, EKONOMIAREN GARAPEN, ORDEN DE LA CONSEJERA DE DESARROLLO JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEKO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE, DE SAILBURUAREN, ALDEZ AURREKO ONARPENA APROBACIÓN PREVIA DE LA ORDEN POR LA QUE SE EMATEKO EAE-KO ABELTZAINTZAKO USTIATEGIETAKO POR EL QUE SE ESTABLECEN LAS NORMAS TÉCNICAS, ARAU TEKNIKOAK, HIGIENIKO-SANITARIOAK ETA HIGIÉNICO-SANITARIAS Y MEDIOAMBIENTALES DE LAS INGURUMENEKOAK EZARRI ETA IRAILAREN 22KO EXPLOTACIONES GANADERAS EN LA CAPV Y SE 515/2009 DEKRETUA INDARGABETZEN DUEN DEROGA EL DECRETO 515/2009, DE 22 DE SEPTIEMBRE. AGINDUARI.

---

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legearen xedapen iragankorrik honako hau xedatzen du: "*Lege hau indarrean jarri aurretik hasitako prozedurak lehengo araudiaren arabera izapidezuko dira amaitu arte*".

La Disposición transitoria de la Ley 6/2022, de 30 de junio, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General dispone que "*los procedimientos iniciados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente ley se tramitarán hasta su conclusión de acuerdo con la normativa anterior*".

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2021eko irailaren 20ko Aginduaren bidez, xedapen orokor bat egiteko prozedura hastea erabaki zen, Euskal Autonomia Erkidegoko abeltzaintzako ustiategiak arautzeko.

Mediante Orden de 20 de septiembre de 2021 de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, se acordó el inicio del procedimiento de elaboración de una disposición de carácter general con el objeto de regular las explotaciones ganaderas dentro de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7. artikuluaren 1. paragrafoak ezartzen duenez, "*Xedapen orokoren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen*

El apartado 1 del artículo 7 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General establece que "*una vez redactados los proyectos de disposición de carácter*

*organoak aldez aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik".*

*general, deberán contar con la aprobación previa por el órgano que haya dictado la orden de iniciación, antes de evacuar los trámites de negociación, audiencia y consulta que procedan".*

Aurreko paragrafoetan adierazitakoari jarraiki, eta EAEko abeltzaintzako ustiategien arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen lehen agindu-proiektua eta horri buruzko txosten juridikoa eta memoria ekonomikoa eskuragarri jarri ondoren, honako hau

En virtud de lo referido en los párrafos anteriores y una vez disponible el primer proyecto de Orden por la que se establecen las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas en la CAPV, así como el informe jurídico y la memoria económica relativos al mismo.

#### EBAZTEN DUT:

**LEHENA:** EAEko abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezarri eta irailaren 22ko 515/2009 Dekretua indargabetzen duen lehen agindu-proiektua onartzea, Xedapen Orokorrak Egiteko Procedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

**PRIMERO:** Aprobar el primer proyecto de Orden por la que por el que se establecen las normas técnicas, higiénico-sanitarias y medioambientales de las explotaciones ganaderas en la CAPV y por el que se deroga el Decreto 515/2009, de 22 de septiembre, a los efectos de lo dispuesto en el artículo 7 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

**BIGARRENA:** Procedura honi ondoren dagozkion izapideak abian jartza; hots, negoziazioa, entzunaldia eta informazio publikoa.

**SEGUNDO:** Acordar la continuidad de los trámites de negociación, audiencia, e información pública que procedan.

Vitoria-Gasteiz,

En Vitoria-Gasteiz,

María Aranzazu Tapia Otaegi,

María Aranzazu Tapia Otaegi,

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMENEKO SAILBURUA

CONSEJERA DE DESARROLLO ECONÓMICO,  
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE

XXX/2024 DEKRETUA, XXXXaren XX(e)koa, EAEko abeltzaintza-ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena eta irailaren 22ko 515/2009 Dekretua indargabetzen duena.

Abeltzaintza-jarduerak funsezkoak dira landa-komunitateen ekonomiarako eta iraupenerako, eta jarduera ekonomiko kualitatibo eta kuantitatibo garrantzitsua dira. Hala ere, beren dimentsioaren eta tartean dauden abere moten arabera, hainbat kalte sor ditzakete kokatuta dauden tokietako ingurumenean, osasungarritasunean eta, finean, bizitza-kalitatean. Horregatik, bi alde horiek uztartu behar dira gurean, non abeltzaintza-jarduerak eta haien garatzen dituzten komunitateak desagertzeko bidean baitaude, abeltzaintza-jarduerak ingurumenaren eta osasungarritasunaren zaintzarekiko errespetuz eta modu bateragarrian garatu ahal izateko.

Helburu hori betetzeko argitaratu zen 515/2009 Dekretua, irailaren 22ko, abeltzaintza-ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezarri zituena. Aipatutako arau-xedapen horrek (paragrafo berean hainbeste aldiz «dekreto» hitza ez errepikatzeagatik) 141/2004 Dekretua indargabetu zuen, lehen aldiz EAEko abeltzaintza-ustiategien ezarpena eta jarraitutasuna antolatu eta arautzeari ekin ziona. Lehendik dauden ustiategietarako 515/2009 Dekretuan jasotako baldintzak aplikatzeko aldiak berriki bete dira.

Azken urteotan, abeltzaintza-ustiategiak antolatzeko oinarrizko arauak ezartzen dituzten Estatuko hainbat arau argitaratu dira: besteak beste, 804/2011 Errege Dekretua, Zaldi-ustiategiak antolatzeko; 306/2020 Errege Dekretua, Txerri-ustiategi intentsiboa antolatzeko; 637/2021 Errege Dekretua, Hegazti Abeletxeak antolatzeko, eta 1053/2022 Errege Dekretua, Behi Abeletxeak antolatzeko. Arau horiek EAEko abeltzaintzaren baldintzen berezitasunera egokitu behar dira, eta Estatuko araudian jasotzen ez diren zenbait alderdi berezi ere arautu behar dira.

Gainera, haragitarako behi eta zaldien ustiategi estentsiboek eta ardi- eta ahuntz-ustiategiek honako berezitasun hau dute: beren abeltzaintza-jarduera neurri batean abeltzaintza-instalazioetik bereizita (eta kasu batzuetan horiek gabe) garatzea. Ustiategi-mota horietan, abeltzaintza-jarduera, kasu askotan, herri-larreetan eta beste udalerri edo lurralte batzuetako lursailetan oinarritura egiten da; beraz, ustiategi horiek ez dira gehieneko edukieraren arabera baimentzen, baizik eta errolda baten berri ematen dute aldian-aldian. Era berean, erlezaintza-ustiategietan, animaliak ez daude inoiz instalazioetan sartuta, beren jarduera etengabe aire zabalean egiten baitute; eta erlezaintzarako kokalekuek ez dute instalazio-izaerarik, animalien larreko kokaleku hutsak baitira.

Duela gutxi, azaroaren 29ko 992/2022 Errege Dekretuak ezarri du zer baldintza bete behar dituzten abeltzaintzako ustiategien titularrek abeltzaintzako intereseko espezieetan antibiotikoak modu jasangarrian erabiltzeko. Era berean, Animalien Osasunari buruzko Europar Batasuneko araudia garatzeko oinarriak ezartzen dituen maiatzaren 16ko 364/2023 Errege Dekretuak ezartzen du ustiategi jakin batzuek osasun-plan integrala izan behar dutela, eta ustiategiko albaitari-izaera duen pertsonari esleitutako eginkizunak zehazten ditu. Azken arau-xedapen horrek, gainera, abeltzaintza antolatzeko hainbat arau aldatzen ditu.

Bestalde, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legeak ingurumen-baimen bateratuaren eta ingurumen-baimen bakarraren prozeduretan txertatzen du jabari publiko hidraulikora isurketak egiteko baimena emateko prozedura. Abeltzaintza-ustiategiei dagokienez, ingurumen-baimen bateratua, jarduera sailkatuaren lizenzia eta jarduera sailkatuaren aldez aurreko jakinarazpena behar dituzten abeltzaintza-ustiategien tamaina-betekizunak ezartzen ditu lege horrek.

Lege horrek ez ditu aintzat hartzen jarduera-lizentziarik lortu behar ez duten jarduerak, aurreko legeak egin bezala; hortaz, abeltzaintzako ustiategi orok, gutxienez, jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpena behar du, etxeko ustiategiek barne. Azken jarduera horiek ingurumenean eragin nabarmenik gabeko abeltzaintzako jardueratzat hartzen dira; hortaz, jarduera sailkatuaren aurretiazko jakinarazpenetik salbuetsita daude, eta, horregatik, aipatutako Ingurumen Administrazioaren LEGEKO I.C eta I.D eranskinak aldatu behar dira.

Testuinguru horretan, abenduaren 27ko 1051/2022 Errege Dekretuak nekazaritza-lurzoruetako nutrizio jasangarrirako arauak ezartzen ditu; besteak beste, abeltzaintzako ustiategietan simaurrak eta mindak aldi baterako pilatzeko baldintzak, bai eta haien nekazaritza-lurzoruetan aplikatzeko betekizunak ere. Dekretu hori oinarrizko arau orokorra da honako hauek lortzeko: berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea, uren kutsadura saihestea eta nekazaritza-lurzoruen propietate biologikoak hobetzea. Horrela, nekazaritza-lurzoruek karbono-hustuleku gisa duten gaitasuna mantendu eta handitu nahi du, eta, horretarako, nitrogeno-ekarprena laborearen beharretara egokitu.

Horrez gain, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako abenduaren 23ko 17/2008 Legeak EAEko nekazaritza-ekoizpenaren printzipio orokorrak ezartzen ditu, baita abeltzaintza-ekoizpenerako berariazko baldintzak ere, bereziki abereen ongizate, osasun eta elikadurari, animalia-jatorriko hondakinen kudeaketari eta minda modu egokian biltegiratu eta kudeatzeari dagokienez. Lege hori garatzeko, 203/2011 Dekretuak EAEko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorraren (REA) antolamendua eta funtzionamendua arautzen ditu, administrazio publikoek nekazaritza-sektorea garatzeko, planifikatzeko eta antolatzeko behar den informazio guztsia modu iraunkor, integratu eta eguneratuan edukitzeko duten tresna gisa. Dekretu horren II. eranskinean, aipatutako erregistroan erregistratu beharreko funtsezko aldaketak ezartzen dira.

Abeltzaintzako ustiategiei dagokienez, martxoaren 26ko 479/2004 Errege Dekretuak Abeltzaintzako Ustiategien Erregistro Orokorra (REGA) ezarri eta arautzen du. Duela gutxi, Estatuak abenduaren 27ko 1054/2022 Errege Dekretua argitaratu du, Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategien eta nekazaritza-ekoizpenaren informazio-sistema (SIEX) ezarri eta arautzen duena, bai eta Nekazaritza Ustiategien Erregistro Autonomikoa eta Nekazaritza Ustiategien Koaderno Digitala ere. Oinarrizko betetze-maila duen araua da, eta administrazioak nekazaritza- eta basogintza-sektorea behar bezala kudeatu eta antolatzeko garatutako sistema informatikoen multzoa arautzen du. Nahitaezkoa da Erregistroa SIEX informazio-sistemarekin interkonektatzea, eta, ondorioz, horrek ere jasota egon behar du dekretu honetan.

Azkenik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 14. artikuluan, administrazio publikoekin elektronikoki harremanak izateko eskubideari eta betebeharri buruzkoan, xedatzen du pertsona juridikoentzat eta pertsona fisikoentzat (beren jarduera profesionala dela-eta beharrezko denean) nahitaez izan behar dituztela harremanak bitarteko elektronikoen bidez administrazio publikoekin administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Ildo horretatik, Euskadin ekainaren 20ko 91/2023 Dekretua argitaratu zen, Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa.

Arau-aldeketa horiek guztiekin eskatzen dute arau berri bat onartzea, eta ez, ordea, egun dagoena aldatzea.

Dekretu hau bat dator erregulazio onaren printzipioekin. Hala, premia- eta efikazia-printzipioei dagokienez, indarrean dagoen araudia harmonizatzeko eta egokitzeko interes orokorrak justifikatzen du araua. Proportzionaltasun-printzipioarekiko egokitzapena bete egiten da, aipatutako premiari erantzuteko beharrezko erregulazioa

jasotzen baitu, aurrekoia indargabetuko duen testu berri bat landuz. Segurtasun juridikoaren printzipiora egokitzea gertatzen da, baldin eta jotzen bada arauak printzipio hori indartzen laguntzen duela, administrazioarekin elektronikoki harremanetan jartzeko betebeharri buruz dagoen araudiaren ildotik baitoa. Gardentasun-printzipioari dagokionez, arauaren hartzaleei aurretiazko kontsultaren eta entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidearen bidez emandako parte-hartzeagatik betetzen da. Azkenik, efikazia-printzipiora egokitzeko arrazoia da dekretu honek ez duela beharrezkoa ez den edo osagarria den administrazio-kargarik ezartzen, baizik eta gaur egun dagoen prozedura simplifikatzen duela.

Dekretu hau prestatzerakoan, kontsulta egin zaie Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako foru-aldundieei, erakunde profesionalei eta sektoreko elkarrekin elkartu eta erakundeei.

Horren ondorioz, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren proposamenez, bat etorri EAEko Aholku Batzorde Juridikoarekin, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko XXXXaren XX(e)(a)n egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

##### I. KAPITULUA

##### XEDAPEN OROKORRAK

###### 1. artikulua.– Xedea.

Dekretu honen xedea da EAEko abeltzaintza-ustiategiak bete behar dituzten baldintza teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzea, hargatik eragotzi gabe sektoreko gainerako arau bereziak, higieniko-sanitarioak, ingurumenekoak, hirigintzakoak edo aplikatzekoak diren beste zenbait betetzea.

###### 2. artikulua.– Aplicazio-eremua.

Dekretuaren I., III. eta V. kapituluetako xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoko lurradean dauden abeltzaintzako ustiategi orori aplikatuko zaizkio.

Dekretuaren II. eta IV. kapituluetan jasotako xedapenak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurrade-eremuan dauden abeltzaintzako ustiategi edo instalazio berriei aplikatuko zaizkie, I. eranskinean zehaztutako espezieen kasuan, bai eta dekretu hau indarrean jarri aurretik zeudenetan funtsezko aldaketaren bat egiten dutenei ere.

###### 3. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honen aplicazioaren ondorioetarako, termino hauek definitzen dira:

- Abeltzaintza-ustiategia: irabazi-asmoarekin edo irabazi-asmorik gabe, abelazkuntzako abereak edukitzeko, hazteko, gobernatzea edo jendaurrean ikusgai izateko erabilitako edozein instalazio- edo eraikin-multzo; edo edozein toki ekoizpen-abereak aire zabalean hazten direnean.
- Ekoizpen-abereak: Abeltzaintzako Ustiategien Erregistro Orokorra ezarri eta araupetzen duen martxoaren 26ko 479/2004 Errege Dekretuan definitutako espezieak edo espezie-multzoak. I. eranskinaren arabera sailkatzen dira espezieak eta espezie multzoak.
- Azienda larri unitateak (AzLU): azienda-kategoriak animalia motaren eta bere

adinaren edo tamainaren arabera alderatzeko aukera ematen duen neurketa-unitatea. Unitate horrek, aldi berean, ustiategi baten gehieneko edukiera ezartzeko balio du (III. eranskina).

– Abeltzaintza-instalazioa: kokaleku espazial bakar batean multzo bat osatzen duten eraikin, abeltzaintza-esparru eta ekipoen sorta, non ekoizpen-animaliak hazteko, ekoizteko edo ugaltzeko jarduera garatzen den.

– Lehendik dagoen instalazioa: dekretu hau indarrean jartzen den egunean martxan dabilen instalazio oro edo, egun horretan oraindik ez funtzionatu arren, dagokion ingurumen-baimena lortu duen eta, gehienez ere, hori baino hamabi hilabete geroago martxan jartzen den instalazio oro.

– Abeltzaintza-ustiategien edo -instalazioen funtsezko aldaketa: abeltzaintza-ustiategi edo -instalazio batean gertatutako edozein aldaketa, baldin eta aldaketa hori Abeltzaintzako Ustiategien Erregistro Orokorean inskribatu beharrekoa bada, dekretu honen 18. artikuluan deskribatzen denaren arabera.

– Abeltzaintzako ustiategiaren titularra: ustiategiaren jabe den edozein pertsona fisiko edo juridiko; edo animalien arduradun den hazlea, baita aldi baterako ere, jabe edo hazle gisa.

– Abeltzaintza-ustiategi estentsiboa: azienda batez ere aire zabalean duena, gobernatzeko mahuka bat edo «harrapakinak» edo animaliak immobilizatu ahal izateko antzeko instalazio bat dituzten gutxieneko azpiegitura sanitarioak izan ala ez.

– Abeltzaintza-ustiategi erdi-estentsiboa: aziendak bazkatzeo larreen aprobetxamendua duen lurralte-oinarri partziala duena, gutxienez ekoizpen-zikloaren faseren batean.

– Abeltzaintza-ustiategi intentsiboa (estentsiboa ez dena): ustiatzen diren abereak, haien ekoizpen-zikloaren zatirik handienean, ukuiluan dituena, simaurra edo minda etengabe metatuta, bai eta ustiategi estentsibo edo erdi-estentsiboaren definizioa betetzen ez duen oro.

– Erlezaintzarako kokalekua: erlategia jartzen den lekua, flora aprobetxatzeko edo negualdia igarotzeko.

– Etxeko ustiategiak: II. eranskinean zehaztutako animalien kopurua gainditzen ez duten ustiategiak.

– Abeltzaintza-ustiategien edo -instalazioen ahalmena: instalazio batek funtzionamendu-baldintza normaletan kudea ditzakeen abereen gehieneko kopurua, Azienda Larri Unitate (AzLU), eta aplikatzekoa den araudi guztia eta administrazio-baimena betez.

– Errolda: data jakin batean abeltzaintzako ustiategi batean dagoen animalia-kopurua.

– Simaurra: haztegiko arrainez bestelako abereen gorotz edo gernu oro, azpiak izan ala ez, minda eta simaur solidoa barne.

– Simaur solidoa: gorozkiak eta gernua, azpietako hondarrekin nahasita edo nahasi gabe, grabitatez jariatzen ez direnak eta ponpatu ezin direnak.

– Minda: gorozkiak eta gernua, azpi eta uretako hondakinekin nahasita edo nahasi

gabe, grabitatez jariatu eta ponpatu ahal direnak, gorotz likidoa lortzeko.

- Jarduera sailkaturako lizentzia: toki-administrazioko organo eskudunaren idatzizko ebazpena (ebazpen horrek aukera ematen du jarduera sailkatu bat baldintza jakin batzuen arabera egiteko, jarduera horrek aplikatu beharreko araudia betetzen dituela bermatzeko).
- Jarduera sailkatuen aurretiazko jakinarazpena: dokumentu horren bidez, interesdunek toki-administrazioko organo eskudunari jakinarazten diote I.D eranskinean jasotako jarduerak edo instalazioak jarduera hasteko gaituta daudela.
- Erantzukizunpeko adierazpena: dokumentu horren bidez interesdunek tokiko administrazioaren organo eskudunari jakinarazten diote etxeko ustiategiak (dekreto honetan zehaztutako moduan) jarduera hasteko gaitasuna dutela.

#### 4. artikulua.– Abeltzaintza-instalazioen sailkapena:

Dekretu honen ondorioetarako, honela sailkatuko dira abeltzaintza-ustiategien instalazioak:

a) Ingurumen-baimen integratua behar duten instalazioak, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen I.A. eranskinaren arabera. Hauetako dira ustiategiak:

– Eskortako hegaztien hazkuntza intentsiborako instalazioak, 40.000 oilo errule baino gehiago dituztenak edo eskortako hegaztien beste ekoizpen-orientazio batzuetarako nitrogeno-iraizketan kopuru baliokidea dutenak.

– Txerri-ustiategi intentsiboak, gizentzeko 2.000 abere edo ugalketarako 750 baino gehiago dituztenak.

b) Jarduera sailkaturako lizentzia behar duten instalazioak, Euskadiko ingurumen-administrazioaren 10/2021 Legearen I.C. eranskinaren arabera. Hauetako dira:

– Industriarako hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizaezinean: hogei AzLU baino gehiagoko abeltzaintza-jarduerak eta etxeko eskortak, III. eranskinean jasotako baliokidetasunak kontuan hartuta.

– Bizitegietarako hiri-lurzoruan: etxeko abeltzaintza-jarduerak; hau da, lau AzLU baino gehiagoko instalazioak, III. eranskinean jasotako baliokidetasunak kontuan hartuta.

c) Jarduera sailkatuen aurretiazko jakinarazpena behar duten instalazioak, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legearen I.D. eranskinaren arabera. Abeltzaintza-ustiategi eta etxeko eskorta txiki hauetako dira:

– Industriarako hiri-lurzoruan edo lurzoru urbanizaezinean: hogei AzLU baino gutxiagoko abeltzaintza-jarduerak eta etxeko eskortak, III. eranskinean jasotako baliokidetasunak kontuan hartuta.

– Bizitegietarako hiri-lurzoruan: etxeko abeltzaintza-jarduerak; hau da, lau AzLU baino gutxiagoko instalazioak, III. eranskinean jasotako baliokidetasunak kontuan hartuta.

d) Erantzukizunpeko adierazpenen mendeko instalazioak: Dekretu honen 3. artikuluan zehaztutako definizioarekin bat datozen etxeko ustiategiak eta II. eranskinean deskribatutako gehieneko animalia-kopurua gainditzen ez dutenak.

##### 5. artikulua.– Abeltzaintza-ustiategien titularren betebeharak.

1.– Abeltzaintza-ustiategi ororen titularrek honako betebehar hauek hartu beharko dituzte beren gain:

- a) Indarrean dagoen osasun- eta higiene-araudia, animalien osasun eta ongizateari buruzkoa eta antolamendu zooteknikoari buruzkoa aplikatzeko ardura izango dute; bereziki, animalia-espezie bakoitzerako berariazko araudian ezarritako arauak.
- b) Abeltzaintzako ustiategian lan egiten duten langileen prestakuntza bermatuko dute.
- c) Dagokionean, Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroan jasotako datuak aldatu direla jakinaraziko diote abeltzaintzako agintaritza eskudunari, bai eta ustiategien erroldetik buruzko datuak ere, urtean behin gutxienez, ezarritako epeetan.
- d) Ustiategiaren erregistro-liburua egin beharko dute. Liburu horren ereduagintaritza eskudunak onetsiko du haien lurralte-eremuan, eta horren gutxieneko edukia sektorearen antolamenduari buruzko araudian jasoko da.
- e) Agintaritza eskudunen ikuskapen-lanak erraztuko dituzte.
- f) Hartu beharreko neurriak hartuko dituzte ustiapan-azpiproduktuak ezabatzeko eta/edo suntsitzeko, indarrean dagoen araudiaren arabera.
- g) Instalazio iraunkorrek animalia guztiei ostatu emateko gaitasuna izango dute (animalia horiek sartu behar izanez gero), ustiategirako erregistratutako gehieneko edukieraren arabera. Hala ere, kontuan hartu beharko dira horri buruzko arauetan aurreikusitako salbuespenak.

## II. KAPITALUA

### ABELTAINTZAKO INSTALAZIOEN KOKALEKUA ETA AZPIEGITURA

##### 6. artikulua.– Abeltzaintzako instalazioen kokalekua eta bereizketa sanitarioa.

1.– Dekretu honen eraginpeko abeltzaintza-instalazioen arteko gutxieneko distantziak kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudiak zehaztuko ditu une bakoitzean.

2.- Abeltzaintzako ustiategietako instalazioetako herringueetako bizitegitarako hiri-lurzoruaren edo lurzoru urbanizagarriaren mugaindarraren distantziak (edo landaguneko lurzoru urbanizazioaren mugaindarraren distantziak) ustiategi-motaren arabera finkatuko dira; eta, gutxienez, IV. eranskinean jasotakoak izango dira. I. eranskinean deskribatutako animalia-espezie bat baino gehiago hartzen duten ustiategien kasuan, distantziak espezierik murriztaileenaren arabera finkatuko dira.

3.– Abeltzaintza-instalazioek V. eranskinean ezarritako distantziak errespetatu beharko dituzte, lur-eremuko beste elementu batzuekikoak, berariazko araudiiek ezar ditzaketenak eragotzi gabe.

4.– Plano horizontalean proiektatutakoak joko dira ezarritako gutxieneko distantzia gisa. Lur-eremuaren profilaren gaineko distantziak planoko neurketak baino % 15 handiagoak badira edo oztopo naturalak edo lurraren gorabeherak badaude, lur-eremuaren profilaren gainean egindako neurketa baimendu ahal izango da. Instalazioetako azpiegitura sanitarioaren gune kalteberak (aziendaren ohiko ukuiluratze-eraikina, minda-hobiak eta simaurtegiak) erreferentzia-puntu modura hartuta neurtu dira distantziak.

7. artikulua.– Abeltzaintza-ustiategietako eraikuntzak eta ekipamenduak.

1.– Abeltzaintza-instalazioek, aldi baterakoek zein behin betikoek, ustiategian dauden abereekiko mendekotasun- eta proportzio-harreman egokia izan beharko dute. Espezie bakoitzak exijitutako beharrizanak bete beharko dira erabilitako azalerari, giro-temperaturari, aireztapenari, hezetasunari eta abarri dagokienez, indarrean dagoen araudiaren arabera, abereen, elikagaien eta deiekzioen erabilera funtzionalari begira.

Arestian aipatutakoez gain, gutxieneko honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

- a) Eraikunzek, instalazioek, erremintek, ekiopoek eta garraiobideek animalientzat eta langileentzat kaltegarriak ez diren materialez eginda egon beharko dute, eta une oro garbitu, desinfektatu, eta intsektuak eta arratoiak hiltzeko aukera eman beharko dute.
- b) Ukuiluak eta horien eranskinak eraikitzerakoan eta mantentzean, kontuan izan beharko da ertz zorrotzik edo irtenik ez egotea, abereak zauritzeko arriskua izan dezakete eta.
- c) Egonleku guztiak egongo dira urez hornitura, bai abereen egarria asetzeko, bai aldizka instalaziook garbitzeko.
- d) Eraikinak isolatu, aireztatu eta berotzean, airearen zirkulazioa, hauts maila, temperatura eta aireko hezetasun erlatiboa eta gasaren kontzentrazioak abereentzat kaltegarriak ez diren neurrien barruan egotea bermatu beharko dute.
- e) Abereen osasuna eta ongizatea behartutako aireztatze-sistema baten mende badaude, larrialdi-sistema egoki bat aurreikusi beharko da, zeinak bermatu beharko baitu abereen osasuna eta ongizatea babestuko dituen aireberritze nahikoa, sistemak huts eginez gero. Alarma-sistema bat ere izan beharko da, matxurarik balego abisua emango lukeena. Alarma-sistema hori erregulartasunez egiaztatu beharko da.
- f) Usaina darien guneak identifikatuta egongo dira. Hala behar izanez gero, aurreikusitako arazte- edo gutxitze-sistemak deskribatuko dira.
- g) Leku bereizian eta egoki aireztatuan biltegiratuko dira produktu fitosanitarioak eta zoosanitarioak.
- h) Ukuiluen zolata iragazgaitza izango da eta gainazala irristagaitza, baina azken betekizun hori ez da beharrezkoa izango ardi- eta ahuntz-azienden kasuan. Likidoak irristatu ahal izateko adinako aldapa izango du, eta likido horiek bilketa-hobi estanko batera bideratuko dira. Ur-bilketak edo -isurketak eragin ditzaketen kanpoko pasabideek edo aisia-eremuek ezaugarri berberak izan beharko dituzte.

8. artikulua.– Siloen ezaugarriak.

Abereen elikagaiak kontserbatzeko obra-siloek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Abeltzaintza-instalazioen ingurueta kokatuko dira eta, beti, instalazioen azpiegitura sanitarioko puntu kalteberak dauden partzelaren perimetroaren barruan. Haien gehieneko kopurua eta bolumena ustiategian dauden abereen kopuruaren, haien gobernuaren eta biltegiratu beharreko pentsu- eta bazka-kantitatearen araberakoak izango dira.
- b) Lurzoruek iragazgaitzak izan beharko dute, eta estankotasun optimoa eduki, euri-

urak ez daitezen iritsi biltegiratutako produktura. Iragazgaiztasuna bermatzeko, material erresistenteak erabili beharko dira, gainera. Hormak ere iragazgaitzak izango dira metro bateko altueraraino. Ez urik ez beste likidorik iragazi ezin denean joko da iragazgaitz gisa.

c) Lurzoruek gutxieneko malda bat izan beharko dute, siloratze-fluidoak ez daitezen inola ere metatu, eta fluido horiek azkar hustu ahal izateko biltegiratze-hobi espezifikoetara, edo, horrelakorik egon ezean, minda-zuloetara.

d) Likidoak eta efluenteak bildu egingo dira, eta ustiategiko gainerako hondakin-urekin batera tratatuko dira.

### III. KAPITULUA

#### INGURUMEN-BALDINTZAK

##### 9. artikulua.– Baldintza orokorrak.

EAEn kokatutako abeltzaintza-ustiategiek indarrean dagoen ingurumen-araudia bete beharko dute; bereziki, honako arau hauek:

– Abenduaren 27ko 1051/22 Errege Dekretua, Nekazaritza-lurzoruen nutrizio jasangarrirako arauak ezartzen dituena. Errege-dekretuak xede hau du: nekazaritza-lurren produktibitatea mantendu edo handitzeko ekintza-esparru bat ezartzea eta, aldi berean, lurzoru horietan ongarriak eta beste mantenugai batzuk edo materia organikoa aplikatzeak ingurumenean eta kliman duen eragina gutxitzea.

– 47/2022 Errege Dekretua, urtarrilaren 18koa, Nekazaritza-jatorria duten nitratoek eragindako kutsadura lausoaren aurka urak babesteari buruzkoa.

– 988/2022 Errege Dekretua, azaroaren 29koa, Ustiategietako Teknika Erabilgarri Onenen Erregistro Orokorra eta abeltzaintza-emisioen kalkulua, jarraipena eta jakinarazpena egiteko euskarria arautzen dituena eta nekazaritza-arloko zenbait arau aldatzen dituena.

– 10/2021 Legea, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena.

##### 10. artikulua.– Simaurra kudeatzeko instalazioak.

1.– Ustiategian sortutako simaurra eta bestelako abere-deiekzioak ustiategiaz kanpo izan dezaketen eragina ahalik eta murritzena izateko moduan biltegiratuko dira, harik eta amaierako kudeaketa egin arte.

2.– Planteatutako soluzio teknikoak behar bezala justifikatu beharko du ustiapenaren baldintza teknikoetara egokitzen dela (tipologia, erabilera, kokalekua, kudeaketa-planteamendua eta abar). Irtenbide hori bat etorriko da abenduaren 27ko 1051/22 Errege Dekretuak nekazaritzako lurzoruetan nutrizio jasangarrirako arauak ezartzen dituenak, planteatzen duen ongarritze-planarekin.

3.– Simaur solidoen simaurtegi estali batean gordeko dira, abereak dauden instalazioetatik bereizita, betiere ustiategiaren kudeaketa-sistemak hala eskatzen badu. Simaurtegiaren zorua iragazgaitza izango da, eta likidoak irristatu ahal izateko besteko aldapa izango du. Likidoak biltze-hobira bideratuko dira. Ez urik ez beste likidorik iragazi ezin denean joko da iragazgaitz gisa.

4.– Simaurtegien iragazgaiztasuna naturala izan daiteke edo material artifizialak aplikatuta lortutakoa. Iragazgaiztasun naturala txosten tekniko baten bidez bermatu

beharko da, lurzoru naturalaren iragazkortasun-koefizientea zehazteko; ez da txikiagoa izango beste iragazgaitze-teknika batzuk erabiliz lortutakoa baino.

5. – Simaurra, ongarri organikoak eta jatorri organikoko beste material batzuk aldi baterako biltzea saihestuko da. Banaketaren logistikarako soilik baimenduko dira, gehienez ere bost egunez, nekazaritzako lurzoruen nutrizio jasangarriari buruzko 1051/22 Errege Dekretuan jasotakoaren arabera edo ustiategia kudeatzeko sistemak hala eskatzen badu, konpostatze-iraulketa edo antzeko teknikak erabiltzen direlako. Edonola ere, harraskak korronteek eragindako iragazketa-arriskurik ez dagoen lekuetan baino ez dira jarriko, eta ur-korronteetatik urrun, hala nola ibilgu, laku, aintzira, bestelako hezegune eta urtegi, giza kontsumorako lurpeko ur-bilketa, putzu eta iturrietatik urrun.

6.– Deiekzio likidoak erabiltzen badira, modu naturalean edo artifizialean hesitutako hobি estanko bat beharko da horiek jaso eta gordetzeko, edo, bestela, antzeko sistemaren bat. Lurrazaleko urak kutsatzeko edo isurketak gertatzeko arriskua saihestu egingo da eta metatutako likidoak ez duela gainezka egingo bermatuko da.

7.– Ukuiluratutako aziendak sortutako produktu organikoak biltegiratzeko gutxieneko edukiera honako hau izango da: gutxienez hiru hilabeteko jarduera lanaldi osoan; horretarako, VII. eranskineko erreferentzia-zifrak erabiliko dira.

8.– Era berean, minda-biltegi malguak ezarri ahal izango dira ustiategetatik kanpo, baita zenbait ustiategik azpiegitura horiek partekatuta ere, ekonomia zirkularreko agertoki batean ezinbestekoak diren azpiproduktu horiek behar bezala kudeatzeko.

#### 11. artikulua.– Simaurra ongarri moduan erabiltzea.

1.– Abeltzaintza-ustiategiek bermatu beharko dute eskura dutela produktu horiek behar bezala kudeatu ahal izateko eta, nekazaritza-funtzioa ziurtatzeko, lurzoruen baldintza edafikoak, kimikoak eta biodibertsitatekoak mantentzea edo hobetzea bermatzeko besteko azalera, bai eta karbono-hustubidea ere, klima-aldaaketaren aurrean eresilientzia handitzearekin batera. Azalera hori ustiategiak kudeatu ahal izango du. Edo kudeaketa ustiategitik kanpokoa izan liteke, baina akordioak eduki ahal izango ditu bertako abeltzaintza-azpiproduktuen kudeaketan esku hartzeko, edo ekonomia zirkularreko prozesuetan nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategien arteko kudeaketa-sistema kolaboratibo baten arabera egin ahal izango da.

2.– Ongarri organikoak erabiltzeari emango zaio lehentasuna ongarritze-plana programatzean; eta lurzoruko materia organikoko edukia handitzea (edo, gutxienez, mantentzea) izango da helburua.

3.– Nekazaritza-lurretan simaurra aplikatzeak Nekazaritza-lurzoruetako nutrizio jasangarriari buruzko 1051/22 Errege Dekretuan jasotakoa bete beharko du. Horrez gain, kontuan hartuko dira lurzoruaren ezaugarriak eta baldintza klimatologikoak. Ildo horretatik, ezingo da minda plater, abaniko eta kanoi bidezko sistemen bitartez aplikatu, temperatura altuen ondorioz Euskalmetek (Euskal Meteorologia Agentziak) ezarritako alarma-garaian, ezta alarma hori amaitu eta hurrengo 12 orduetan ere; ordu horietara ere luzatuko baita debekua.

4.– Gainera, aplikazioan, VI. eranskineko distantziak bermatu beharko dira (kasu bakoitzean aplikagarri diren foru-arauen edo Estatuko arauen kaltetan izan gabe).

#### 12. artikulua.– Simaurra eta mindak kudeatzeko bestelako moduak.

1.– Beste modu batzuetara ere kudeatu ahal izango dira simaurra eta mindak, betiere indarrean dagoen legeria errespetatuta.

2.– Simaurraren amaierako kudeaketa enpresa baimendun kudeatzaileen bitartez gauzatzen bada, agirien bidez justifikatu beharko da (hondakinak onartzea eta erretiratzeko konpromisoa).

13. artikulua.– Euri-urak eta deiekzioetatik eratorritakoak ez diren hondakin-urak.

1.– Euri-urak besteetatik bereizita hustu beharko dira; hau da, ez dute kontakturik izango hondakin-urekin, simaurrarekin eta mindekin.

2.– Hondakin-urak modu egokian kudeatuko dira. Beharrezkoa bada, erabiliko den arazketa-sistema aurkeztuko da, haren mantentze-programa eta arazitako uren eta hondakinen helmuga zehaztuta. Eroanbideak itxiak eta iragazgaitzak izango dira. Ez urik ez beste likidorki iragazi ezin denean joko da iragazgaitz gisa.

3.– Hondakin biosanitario likidoak bereizita bildu eta kudeatu beharko ditu hondakinak kudeatzeko behar bezala baimendutako enpresa batek.

4.– Ukuiluratze askean, eskortetako jariatze-urak simaur-hobira bideratzeko eta han biltzeko sistema bat ezarri beharko da; ur horiek kontuan hartuta diseinatu beharko da. Eskorta horiek zoru iragazgaitza izango dute akuiferoak oso kalteberak diren lekuetan. Ez urik ez beste likidorki iragazi ezin denean joko da iragazgaitz gisa.

14. artikulua.– Gorpuak eliminatzea.

Ustiategian hildako abereak eliminatzea halako moduz egingo da ezen bete beharko baitira alor horretan unean-unean indarrean dauden xedapenak.

15. artikulua.– Ustiategiko beste hondakin batzuk.

1.– Hondakin solido ez-organikoak biltegiratzean ez da kutsadura-arriskurik edo ingurumen-kalterik eragingo.

2.– Hondakin horiek indarrean dauden arauetan bat etorri ezabatuko dira, eta ezingo dira aire zabalean erre.

16. artikulua.– Emisioak murriztea.

1.– Simaur solidoa, mindak, produktu edo material organikoak edo organiko-mineralak, hondakinak barne, aplikatzen direnean, emisioak murrizteko neurrietako bat erabili beharko da gutxienez, Nekazaritza-lurzoruetako nutrizio jasangarriari buruzko 1051/22 Errege Dekretuan jasotakoaren arabera.

2.– Abeltzaintzako Azpiproductuen Plan Orokorra onartzeko eskabidean adierazitakoaren arabera eta kasu bakotzean aplikatzeko den araudian ezarritakoa betez gorde eta kudeatuko dira simaurra/mindak.

#### IV. KAPITULUA

##### ADMINISTRAZIO-IZAPIDEAK

17. artikulua.– Abeltzaintza-ustiategi berriak baimentzea eta erregistratzea.

1.– Jarduerari ekin aurretik, EAEn kokatutako abeltzaintza-ustiategi guztiekin honako hauetan egon beharko dute erregistratuta: Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorean (EAeko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrari buruzko irailaren 27ko 203/2011 Dekretuak arautzen du erregistro hori), edo haren ordezkoan; eta Abeltzaintzako Ustiategien Erregistroan (aurrantzean, REGA)

(479/2004 Errege Dekretuak, martxoaren 26koak, Abeltzaintzako Ustiategien Erregistro Orokorra ezartzen eta arautzen duenak, arautzen du erregistro hori). Eta haietan erregistratzea ezinbesteko baldintza izango da abeltzaintzako ustiategiarekin lotutako zooteknikako edo osasun alorreko agirriak emateko.

2.– Debekatuta dago kokapen berean titular batek edo gehiagok abeltzaintza-ustiategi edo REGA kode bat baino gehiago izatea, kokapen hori nagusia edo bigarren mailakoa bada ere, ezinezkoa litzatekeelako biosegurtasunerako neurriak ezartzea.

3.– Kokapen bakoitza horren titular nagusi bati lotuta egongo da, baita eremu geografiko bati ere; eremu hori, oro har, ustiategiak dauden udal-mugartea izango da, edo, hala badagokio, tokiko albaitaritza unitate baten eragin-eremua.

4.– Kokapen berean I. eranskinean adierazitako espezietako bat baino gehiago daudenean, garatzen diren jardueren eta dauden biosegurtasun-baldintzen arabera, abeltzaintza-ustiategiko REGA kode bakarra emango da.

5.– Agintaritza eskudunak erabakiko du, indarrean dagoen osasun-legeria eta ustiategien antolamenduari buruzkoa aplikatuta, titular berak ustiategi bat baino gehiago izan ditzakeen edo izan behar dituen, kokapen batean edo gehiagotan, udal-mugarte edo tokiko albaitaritza unitate berean. Horri dagokionez, unitate epidemiologikoaren kontzeptua funsezko izango da kokapen berria lehendik dagoen ustiategi baten barruan erregistratu behar den edo berri gisa alta eman behar zaion erabakitzean.

18. artikula.– Abeltzaintza-instalazioetako eta -ustiategietako funsezko aldaketak.

Funsezko aldaketatzat hartuko dira honako hauek:

a) Jarduera uztea edo ustiategiko jarduera bertan behera uztea dakarren baja ematea.

b) Honako hauek aldatzea: titulartasuna edota sozietatearen izena edota abeltzaintzako ustiategiaren titularraren forma juridikoa. Salbuespen izango dira odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko hirugarren mailara arteko senideen artean edo ustiategia gutxienez bi urte lehenago osatzen duten pertsonen artean gertatzen diren titulartasun-aldaketak.

c) Aldaketak ustiategiaren kokapenean eta mugaketan (lekualdatzea, berritzea).

d) Ustiategiko ekoizpen-orientazioari (zooteknikoa) buruzko aldaketak.

e) Ustiategiaren administrazio-baimenak aldatzea eskatzen duten instalazioak, azalerak edota jarduerak handitzea, gutxitzea edo aldatzea.

Funsezko aldaketa guztiak REGAn erregistratuko dira, gertatzen diren unean, bai titularrak eskatuta, bai erregistroaz arduratzen den bulegoak ofizioz erregistratuta.

19. artikula.– Etxeko ustiategiak

Etxeko ustiategiek, 3. artikuluan definitzen diren moduan, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, eta dekretu honen 22.4 artikuluan zehazten denez izapidetuko dira.

20. artikula.– Ustiategi estentsiboak.

1.– Ustiategi estentsiboen sailkapena, 4. apartatuan ezarritako irizpideen arabera, instalazioen edukieraren arabera egingo da, eta aldez aurreko komunikazioa gisa

izapidetuko dira hogei AzLUko baino edukiera txikiagoko instalazioak dituztenak, III. eranskinean jasotako baliokidetasunen arabera.

2.– Haragitarako behi eta zaldien eta ardieng eta ahuntzen ustiategi estentsibo guztiak erabilera partikularreko instalazio edota lursail hesituak izango dituzte, eta ustiategian erroldatutako animalia guztiak hartzeko adinako edukiera izango dute osasun arloko bahiketa behar den kasuetarako.

3.– Instalazio finko iraunkorrik ez duten ustiategi estentsiboetan, maneiuko mahuka eta antzeko instalazioa eduki beharko dira, abeltzaintzan eskumena duten agintariekin zehazten dituzten nahitaezko osasun-programak aplikatzeko animaliak geldiarazi ahal izateko.

4.– Erlezaintza-ustiategien kasuan, eta erlauntzak ez direnez instalaziotzat hartzen, udalean jardueraren lizenzia, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena izapidetu beharko duten instalazio bakarrak, egokia denaren arabera, erlezainaren instalazioak izango dira, hau da, erabiltzen dituen erauzketa- eta/edo zerbitzu-lokala, halakorik badago. Foru-organoei dagokie, erlezaintzaren antolamenduari buruzko araudiaren arabera, erlategi arteko eta lurraldoko beste elementuetara arteko distantziak ezartzea.

#### 21. artikulua.– Eskumen-araubidea.

1.– Administrazio publikoek, ingurumenaren arloan dituzten eskumenak baliatuz, efikazia-, lankidetza- eta koordinazio-printzipioen arabera jardungo dute, eta ezarritako helburuak betetzeko informazioa emango diote elkarri.

2.– Ingurumenean eta pertsonen osasunean eragina duten jarduerak antolatzea, ikuskatzea eta horietan diziplina jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei dagokie, beren eskumenen esparruan.

3.– Lurralde historikoetako foru-organoei dagokie udalei laguntzea jarduera sailkaturako lizenziaren eta jarduera sailkatuen aurretiazko jakinarazpenaren prozedura behar duten jarduera eta instalazioei dagokienez.

#### 22. artikulua.– Jarduera sailkatuen lizenziarako prozedura.

1.– Ingurumen-baimen integratua behar duten ustiategien proiektuetan, baldin eta baimen hori ematea Eusko Jaurlaritzan ingurumenaren arloko eskumena duen sailaren eskumena bada, sustatzaileak VIII. eranskinean jasotako dokumentazioa integratuko du ingurumen-baimenaren proiektu teknikoaren barruan; eta ingurumen-organoak dagokion foru-aldundiko zerbitzu eskudunari igorri beharko dio abeltzaintza-baimena emateko informazioa.

2.– Jarduera sailkaturako lizenzia behar duten ustiapen-proiektuetan, instalazioak kokatuta dauden udalari dagokio lizenzia ematea. Jarduera sailkaturako lizenziaren eskaera udalari aurkeztuko zaio, eta sustatzaileak jarduera sailkatuen expedienteean sartuko du VIII. eranskinean jasotako dokumentazioa. Teknikari eskudun batek izenpetuko du proiektua. Bertan, honako hauek zehaztuko dira: jardueraren ezaugarriak, kokatuko den ingurunearen deskribapena, ingurumenean izan dezakeen eragina eta erabili nahi diren neurri babesle eta zuzentzaileak; horien efikazia-maila eta segurtasun-bermea ere adieraziko dira.

Jendaurrean jartzeko epea hilabetekoa izango da, alegazioak aurkeztu ahal izan daitezen. Jendaurrean jartzeko epearekin batera, udalak txosten tekniko hauek eskatuko dizkie kasuan kasuko organo eskudunei (eta horiek hamabost eguneko epean eman

beharko dute erabakia, aurkeztutako eskabidea aztertu ondoren):

a) Osasun-txostena, nahitaezkoa eta loteslea, osasun publikoaren arloko agintaritza eskudunari.

b) Ingurumen-txostena, neurri babesle eta zuzentzaileak ezartzeari buruzkoa, nahitaezkoa eta loteslea: 10.000 biztanletik beherako udalerriek txosten bat eskatu beharko diote dagokion foru-aldundian ingurumen-eskumenak dituen organoari; txosten horrek jarduera ingurunearekin bateragarri egiteko eska daitezkeen ingurumena babesteko eta zuzentzeko neurriak jasoko ditu. 10.000 biztanle edo gehiagoko udalerriek dagokion foru-aldundiko organo eskudun horri eskatu ahal izango diote txosten hori.

c) Txosten sektoriala, nahitaezkoa eta loteslea, abeltzaintzaren arloan eskumena duen foru-organoari. Organo horrek, espezieen antolamenduari buruzko araudian oinarrituta, proiektu horiek bete beharreko baldintzak aztertu eta horien inguruko txostena egingo du.

Era berean, udalak beharrezko den beste edozein txosten eskatu ahal izango die, jardueraren izaeraren arabera, beren eskumenen arabera iritzia eman behar duten organo guztiei, hamabost eguneko epean, aurkeztutako eskaera aztertuta txostena egin dezaten.

3.– Jarduera sailkatuen aurretiazko jakinarazpena behar duten proiektuetan, jakinarazpen hori udalean aurkeztuko da, behin instalazioak hasteko gaituta daudenean; eta, hala badagokio, nahitaezko hirigintza-lizentziak, baimenak, jakinarazpenak eta abeltzaintza-antolamenduko dagozkion erregistroetako inskripzioa izan beharko dituzte. Aurkeztu beharreko dokumentazioa VIII. eranskinean zehaztutakoa izango da.

Udalari dagokio jarduera sailkatuen aurretiazko jakinarazpena behar duten jarduerak egiaztatzea, zaintza, ikuskatzea eta zigortzea. Eginkizun horiek betetzeko, dagokion foru-aldundiaren laguntza teknikoa eskatu ahal izango dute.

Udalek erregistro bat izango dute, eta han bilduko dira beren udal-mugartean egiten diren jarduera sailkatuen aurretiazko jakinarazpena behar duten jarduerak eta instalazioak.

Egin nahi den jarduerak ez badu eskatzen egingo den lokaletan obrarik egitea, jakinarazpenaren eraginkortasuna instalazio horietan egin nahi den jardueraren hirigintza-bateragarritasunaren mende egongo da.

4 AzLUTik beherako edukiera duten ustiategien kasuan, haien jarduera bizitegitarako hiri-lurzoruan egingo bada, foru-organo eskudunak ez du ustiategia erregistratuko tartean den udalaren aurretiazko baimenik gabe.

Norberaren kontsumorako edo erabilerrako ustiategien kasuan (dekreto honen 3. artikuluan definituta daude), jarduera sailkatuen aurretiazko jakinarazpena egiteko, 19. artikuluan deskribatutako prozedura bete beharko da.

4.– Erantzukizunpeko adierazpena behar duten proiektuetan, abeltzaintza-ustiategiko titularrak udaletxeen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du, instalazioak erabiltzeko gaituta daudenean; hala badagokio, derrigorrezko hirigintza-lizentziak, baimenak eta jakinarazpenak izan beharko ditu, eta dagokion abeltzaintzaren antolamendu-erregistroan izena emanda egon beharko du. Aurkeztu beharreko dokumentazioa IX. eranskinean jasota dago.

Alde batera utzi gabe artikulu honetan jasotakoa, Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legean jasotakoa hartuko da kontuan.

## V. KAPITULUA

### IKUSKAPENAK ETA ARAU-HAUSTEAK

#### 23. artikulua.– Ikuskapenak eta kontrola.

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-entitateei dagokie, beren eskumenen esparruan, ingurumenean eta pertsonen osasunean eragina duten jardueren antolamendua, ikuskapena eta diziplina, arau honen 21. artikuluan adierazitakoari jarraikiz eta Euskadiko Ingurumen Administrazioaren 10/2021 Legean oinarrituz.

Jarduera eta instalazio sailkatuen araudiari dagokionez, foru-organoei dagokie udaltxeetara jotzea. Gainera, abeltzaintzaren eta REGAREN esparruko foru-organo eskudunei dagokien animalien ongizatearekin eta osasunarekin eta sektoreko araudiaren betetzearekin lotutakoa ikuskatu, kontrolatu eta, hala badagokio, zehatzea.

#### 24. artikulua.– Zehapen-araubidea.

Dekretu honetan ezarritakoa betetzen ez bada, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzko abenduaren 23ko 17/2008 Legean, eta Animalien osasunari buruzko apirilaren 24/8/2003 Legean ezarritako arau-hausteen eta zehapenen araubidea aplikatuko da, bai eta administrazio-zuzenbidearen arloko gainerako zehapen-xedapenak ere.

#### LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.– **Baimentzeko fasean dauden ustiategiak.**

Izapidetze-fasean dauden eta administrazio-bidean ebatzen irmorik ez duten ustiategiak baimentzeko expedienteak, baldin eta dekretu hau argitaratu aurretik ekoizpen-prozesuan zuzenean implikatutako instalazioak eraikitzen hasteko beharrezkoak ziren izapide guzti-guztiak bete badituzte, izapide horiek bete ziren unean indarrean zegoen araudiaren arabera ebatzik dira.

#### BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– **Lehendik zeuden instalazioak arautza.**

